

Sekretuak belarrira
RUBEN RUIZ
Ilustratzailea: ELENA ODRIOSOLA
Aizkorri, Bilbo, 2007

Jolasa omen da haur poesiaren ezaugarri behinena. Eta, horretarako, ezinbestekoak omen dira haur poesian errima eta erritmoa. Ikuspegi hori nagusi da gaur egun haurren poesia aztertzen dutenengan. Eta bat nentorke, baldin eta “behinena” eta “ezinbestekoa” hitzak kenduko bagenitu esaldi horretatik. Poesian, oro har, eta haur-poesian ere berdin, ez dago ezinbestekorik. Gaur egun oso modan dago, batez ere gaztelaniaz, bertsolarien moduko ahapaldi erritmiko errazak erabiltzea (oktosilabikoak batik bat); eta molde horiek puskatzen dituzten testuek ez omen dute “erritmorik”; horrelakoak behin eta berriz entzuten eta irakurtzen ditut.

Honezkero nabaria da zer esan nahi dudan: bideak estutzearen kontra nagoela. Poesiaren ezaugarri ezinbestekoa poesia bera da, eta oso ondo zehaztu ezin den kontua da poesia zer den definitzea. Ibiliaren ibiliz dastatzen den zerbait dela esango nuke.

Ibiliaren ibiliz eta sekretuak belarrira esanez bezala dastatzen da Ruben Ruizen poesia ere. Lilura batetik jaiotzen da, hitzaren eta munduaren arteko lotura aske eta xumetik.

“Eta txorimaloa mintzatu zen” obraren bidez narrazio poetikoaren eremua landu ostean, *Sekretuak belarrira* hauxe da haren lehen poema-liburua, haur txikiei zuzendua. Liburuaren egitura urteko hilabeteen ingurukoa da, urtariletik abendura, haietako bakoitzerako hiru poema labur eskaintzen dituela. Alde horretatik, aurreko hamarkadan Yolanda Arrietak eta Joxantonio Ormazabalek hurrenez hurren argitaraturiko “Denboraren kanta-kontuak” eta “Hitzak jostailu” poema-liburuetako denboraren gurpilaren tradizioan kokatzen du bere burua Ruizek.

Formari dagokionez, poema laburrak dira, hiruzpalau lerrokoak. Pieza labur horietan, errima eta erritmoa barrutik sortzen dira, berez bezala. Aurrena ura bilatzen da, eta gero esku ahurretan biltzen, edateko. Eta ez alderantziz; aurrera ontzi bat hartu (forma) eta gero hasi ur bila. Liburuaren hasierako “Ardia” poema oso indartsua da: “Mendi magalean / elur maluta: / bertan ardia galduta.” (5. or.).

Izadiko zertzeladak sentipenetik igaroarazten dira liburuan:

“Basoan kukua kukuka; / errekek darama / mezua txistuka”.

Haikuaren eta koplazaharraren uztarketa etengabea eta fina ikusten da liburuan zehar, beti ere modu librean eta jostarian, doinu *minor* batean, belarrira hitz eginez bezala.

Eta elkarrizketa horri eusten diote Elenaren marrazkiek, elkarrizketa hori areagotzen dute, poesiari poesia emanez. Adibide zoragarri bat “Haize jostuna” poeman dugu; irudiak poema areagotu egiten du, sentsazioa areagotu, halako ikus-mugimenduzko sinestesia bat eraginez:

“Ama josten leihoan, / gortina gona bihurtu / haizea bada ondoan.”

Era askotako gaiak darabiltza Ruben Ruizek liburuan barrena, baina naturaren hondamendiarekiko kezka berezi bat sumatu uste izan dut, hondamendi naturala zein gizakiaren eskutik etorria: sutea, erreka lehortua, tximista, lurrikara, baleen hilketak, deforestazioa...

Beste batzuetan, zorionez, artifiziozko naturak sortzen ditu gizakiaren esku bestetan suntsigarriak, palmondoak adibidez: “Uda-gauean su-festa; / gurasoen babesean, ze ondo!! / Pumm!! Pumm!! / Zeru ilunean bi palmondo” (24. or.).

Irudiak, esan bezala, Elena Odriozolarenak dira, eta poemei interpretazio pertsonala eman ez ezik, ikusizko esanahi orobat poetikoa ere gaineratzen diete, noiz kolorearen bidez, noiz aukeratutako motiboaren bitartez.

Manu Lopez Gaseni

Juan Kruz Igerabide